

**II. ATALA****BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA****Basauriko Udala**

**Oinarri espezifikoak, barne-sustapeneko txandan goi mailako teknikariaren lanpostu bat lehiaketa-oposizio bidez betetzeko. lanpostua: 244kod, «IKT Proiektuen Burua», administrazio bereziko eskala, azpieskala teknikoa, goi mailako teknikariaren klasea (A1 taldea). 2022ko LEP.**

Alkatea jaunak 1202/2023 Dekretua eman du, 2022ko martxoaren 22an. Honelaxe dio bertako testuak:

*Lehenengoa:* Oinarri hauen xede diren hautaketa-proben deialdia egitea.

*Bigarrena:* Barne-sustapeneko txandan eta lehiaketa-oposizio bidez goi mailako teknikariaren lanpostu bat betetzeko hautaketa-prozesua arautuko duten oinarri espezifikoak onartzea. Lanpostua: 244KOD, «IKT proiektuen burua», Administrazio Bereziko Eskala, Azpieskala Teknikoa, goi mailako teknikariaren Klasea (A1 taldea). Dekretu honen eranskinean daude jasota oinarriak.

*Hirugarrena:* Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzeko agintzea.

*Laugarrena:* Dekretu hau argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahal izango da Bilboko Administrazioarekiko Auzien Epaitegian, bi hilabeteko epean, edo, bestela, berraztertze errekurtsoa, hilabeteko epean, ebazpena eman duen organo beraren aurrean, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 46.1 artikuluan aurreikusitakoaren arabera, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 116. artikuluari dagokionez.

Basaurin, 2023ko martxoaren 22an.— Alkatea, Asier Irigorri Basaguren



**OINARRI ESPEZIFIKOAK, BARNE-SUSTAPENEO TXANDAN GOI MAILAKO  
TEKNIKARIAREN LANPOSTU BAT LEHIAKETA-OPOSIZIO BIDEZ BETETZEKO.  
LANPOSTUA: 244KOD, «IKT PROIEKTUEN BURUA», ADMINISTRAZIO BEREZIKO  
ESKALA, AZPIESKALA TEKNIKOAK, GOI MAILAKO TEKNIKARIAREN  
KLASEA (A1 TALDEA). 2022KO LEP**

**Lehenengoa. — Deialdiaren xedea**

Administrazio Bereziko Eskalako eta Azpieskala Teknikoko goi mailako teknikariaren lanpostu bat, «IKT proiektuen burua», barne-sustapeneko txandan. Goi mailako teknikariaren klasea, A1 taldeari dagokion soldata, aparteko ordainsariak, hiru tekoak eta legediaren eta Udalbatzak hartutako edo hartuko dituen erabakien arabera dagozkion gainerako ordainsariak edo kargu-sariak.

Kod	Lanpostua	T	HE	Derrig.	Maila	O. Espezifikoa (€)
244KOD	IKT proiektuen burua	A1	3		24	2.585,26

Deialdi honen xede den lanposturako baldintzak eskabideak aurkezteko epea amaitzen den unean bete beharko dira, eta izendapenaren unera arte mantendu, hautaketa-prozeduran zehar, euskararen 3. hizkuntza-eskakizuna izan ezik (laugarren ariketa egin arte atzeratu ahal izango da).

Lanpostuaren zereginak: Saileko prozesuen edo espedienteen normalizazioa diseinatzea, kontrolatzea eta ebaluatzea. Sailean kalitatea ezarri eta kontrolatzeko prozesuak kudeatzea. Saileko proiektuak, programak eta zerbitzuak kontrolatzea eta ebaluatzea. Udalararen zeharkako proiektuetan parte hartzea, Udalbatzak halakorik izendatzen badu. Ardurapeko prozesuen adierazleak definitzea eta kontrolatzea. Sailean ezarritako hobekuntza-planak gauzatzea. Adierazleak kontrolatzea eta ardurapeko prozesuak eta jarduerak hobetzeko aukerak identifikatzea. Prozesuetan esku hartzen duten kideak koordinatzea eta prozesu horiek behar bezala egiten direla ziurtatzea. Lanpostuarekin zerikusia duten txostenak eta memoria teknikoak egitea. Hirugarrenetikiko kudeaketa-lana egitea, lanpostuari dagozkion gaietan. Administrazio Orokorreko teknikarien kasuan, errekursoak eta erreklamazioak ebaztea. Dagozkion prozesuak eta dokumentuak ziurtatzea. Arloarekin lotutako prozesuetan esku hartzea, arloko buruek zehazten duten neurrian. Arloko buruek agindutako programen kudeaketa ekonomiko-finantzarioa egitea. Udalak bere ardurapeko gaietan eskatzen eta/edo ematen dituen dirulaguntzak kudeatzea. Udalararen eta bere erakunde autonomoen IKT proiektuak kudeatzea eta zuzentzea. Udalararen informazio geografikoaren sistemarekin zerikusia duten proiektuak kudeatzea eta zuzentzea. Sailaren baliabideak koordinatzea, ardurapeko proiektuak garatzeko.

Deialdi honen bidez hautaketa-prozesua gainditu baina plazarik lortu ez duten izan-gaiak 3 urterako lan-poltsa bat osatuko dute, luzatu ahal izango den poltsa, eta aldi baterako zereginetarako deitu ahal izango zaie, edo behin-behineko edo behin betiko lanpostu hutsak betetzeko. Poltsa horrek lehentasuna izango du indarrean jarraitzen duten aurreko poltsei dagokienez.

Oinarri hauetan aurreikusten ez denerako, legeria hau hartuko da kontuan:

- Enplegatutako Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen Testu bategina, urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartua.
- 11/2022 Legea, abenduaren 1ekoa, Euskal Funtzio Publikoari buruzkoa.
- 190/2004 Dekretua, urriaren 13koa, Euskal Administrazio Publikoetako funtzionarioen lanpostuak betetzeko araudia onartzen duena.
- 30/1984 Legea, abuztuaren 2koa, Funtzio Publikoaren Eraldatzeko Neurriari buruzkoa.
- Estatuko Administrazio Orokorrearen zerbitzuko langileen sarrerari, lanpostuak betetzeari eta Estatuko Administrazio Orokorreko funtzionario zibilen lanbide-sustapenari buruzko Erregelamendu Orokorra, martxoaren 10eko 364/1995 Errege Dekretuaren bidez onartua.
- 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituena.



- Toki-araubidearen arloan indarrean dauden lege-xedapenen testu bategina, apirilaren 18ko 781/1986 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartua.
- 896/1991 Errege Dekretua, ekainaren 7koa, zeinaren bidez ezartzen baitira Toki Administrazioako funtzionarioak hautatzeko prozedurak bete behar dituen oinarriko arauak eta gutxieneko programak.
- 86/1997 Dekretua, apirilaren 15ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautzen duena.
- 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena.
- 40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarena.
- 4/2005 Legea, otsailaren 18koa, Emakumeen eta Gizonen berdintasunerakoa.

Era berean, aplikatuko dira Basauriko Udalaren Oinarri Orokorrak, Alkatetzaren uztailaren 1eko 2311/2022 Dekretuaren bidez onartuak, 2022ko uztailaren 26ko Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuak.

#### **Bigarrena. — Hautagaiak bete beharreko baldintzak**

Lehiaketa-oposizio honetan onartua izateko eta, hala badagokio, parte hartzeko, baldintza hauek bete beharko dira:

- a) Basauriko Udalaren zerbitzuko karrerako funtzionarioa izatea, eta zerbitzu aktiboan edo zerbitzu berezietan egotea, edo seme-alabak edo senideak zaintzeko eszedentzian, edo indarkeria terroristagatik edo genero-indarkeriagatik eszedentzian. Gutxienez bi urteko antzintasuna izatea A taldeko A2 azpitaldeko Administrazio Bereziko lanpostu integratuan.
- b) Informatikako lizentziaren edo graduaren titulua edo baliokidea izatea.
- c) Aplikatu beharreko gainerako baldintzak, indarrean dauden Oinarri Orokorretan ezarritakoak (Alkatetzaren uztailaren 1eko 2311/2022 Dekretuaren bidez onartuak, 2022ko uztailaren 26ko 141. zenbakiko Bizkaiko Aldizkari Ofizialean eta Udalaren webgunean argitaratuak).

Deialdian parte hartu nahi dutenek baldintza guztiak bete beharko dituzte, eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunean.

Era berean, hautaketa-prozeduran zehar mantendu beharko dira baldintzak, izendapena egin arte.

#### **Hirugarrena. — Eskabideak aurkeztea**

1. Eskabideak aurkezteko epea 20 egun baliodun izango da, deialdia Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratzen denetik aurrera.
2. Hautaketa-prozesuan onartua izateko eskabideak -Herritarrentzako Arreta Zerbitzuan (HAZ) eta web-orrian ([www.basauri.eus](http://www.basauri.eus)) eskuragarri dagoen eredu normalizatu- Alkatetzari zuzenduko zaizkio, eta HAZan aurkeztuko dira (Kareaga Goikoa 52), edo Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan aurreikusitako edozein modutan.
3. Eskabidean, hautagaiak adieraziko dute zer hizkuntzatan egin nahi dituzten oposizio-faseko ariketak (euskaraz edo gaztelaniaz) eta egokitzapenik behar duten probetan, desgaitasunen bat izanez gero.
4. Gainera, 3. hizkuntza-eskakizunaren proba egin nahi duten hautagaiak proba hori egin nahi dutela adierazi beharko dute hautaketa-prozesuan parte hartzeko eskabidean; bestela, ezin izango dute egin, eskabideak aurkezteko epearen barruan hala adierazi ez badute.
5. Eskabidean, balioetsiko diren merezimenduei buruzko datuak eta merezimenduak egiaztatzen dituzten agiriak jaso beharko dituzte izangaiek.
6. Behin eskabideak aurkezteko epea igarota, eskabideak lotesleak izango dira eskatzaileentzat. Ez da baloratuko eskabideak aurkezteko epearen barruan alegatu ez den



merezimendurik, ezta epearen barruan alegatu izan arren oinarri hauetan aurreikusitakoa ez den beste une batean justifikatu den merrezimendurik ere, hizkuntza-eskakizuna izan ezik, euskara-eskakizunaren azterketa egiten den egunean egiaztatu beharko baita hori.

7. Parte-hartzea borondatezkoa da, eta horrek esan nahi du probak egiteko baimen argia eta berariazkoa emango dela eskabidean. Parte-hartzaileek emandako datuak fitxategi batean sartuko dira, eta hautaketa-prozedura honetan aurreikusitako helburuetarako baino ez da erabiliko fitxategi hori. Fitxategi horren erabilera bat etorriko da Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalen Bermeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoarekin (2018ko abenduaren 6ko BOE) eta Titulartasun Publikoko Fitxategi Pertsonalei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa Sortzeari buruzko otsailaren 25eko 2/2004 Legearekin.

#### **Laugarrena. — Hautagaiak onartzea**

Eskabideak aurkezteko epea amaitzean, dagokion udal-organoak ebazpena eman du, onartutakoen eta baztertutakoen behin-behineko zerrenda onartzeko eta epaimahaikideak izendatzeko. Ebazpen horretan, lehenengo ariketa non eta noiz egingo den adieraziko da, eta hori guztia argitaratuko da Bizkaiko Aldizkari Ofizialean eta hirugarren oinarrian aipatutako helbide elektronikoan.

Zerrendatik kanpo gelditutako izangaiek 10 egun balioduneko epea izango dute erreklamazioa aurkezteko eta egotzi zaizkien hutsegiteak zuzendu edo falta diren agiriak aurkezteko, eta ohartaraziko zaie hori egin ezean artxibatu egingo dela eskabidea, izapide gehiagorik egin gabe.

Erreklamazio-epea igarota erreklamaziorik aurkezten ez bada, behin-behineko zerrenda behin betiko zerrenda bihurtuko da automatikoki. Erreklamaziorik aurkezten bada, baietsi edo ezetsi egingo da, behin betiko zerrenda onartuko duen ebazpen berri baten bidez, eta Bizkaiko Aldizkari Ofizialean eta helbide elektronikoan argitaratuko da.

Probak ez dira egingo deialdiaren azken iragarki ofiziala argitaratu eta bi hilabete igaro arte, eta probetarako deialdiak argitaratuko dira Udalaren web-orrian.

#### **Bosgarrena. — Epaimahaia**

Epaimahaiak kide-kopuru bakoitia izango du (bost, gutxienez), Alkatetzak izendatutak. Batek presidente-lanak egingo ditu, eta beste bat idazkaria izango da. Epaimahaiakide guztiek hitza eta botoa izango dute, idazkariak izan ezik (soilik hitza). Gainera, ordezkokoak izendatuko dira. Nolanahi ere, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak (IVAP) izendatutako pertsona bat egongo da. Euskararen jakite maila ebaluatzeko probetan, halaber, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak (IVAP) izendatutako pertsona bat egongo da.

IVAPek euskararen ezagutza-probarako izendatutako epaimahaikidea zeregin horretan soilik arituko da, berariaz besterik ezarri ezean.

Epaimahaia teknikoa izango da batik bat, eta espezialitate-printzipioan oinarrituko da. Beraz, kide guztiek izango dute deialdiko plazak eskuratzeko eskatzen den maila akademiko bereko edo handiagoko titulazioa, eta kideen erdiek, gutxienez, esperientzia egiaztatua izango dute bete beharreko lanpostuaren ezagutza arlo berean. Gainera, %40koa izango da gutxienez sexu bakoitzaren ordezkaritza, beharrezkoa ez dela justifikatzen denean izan ezik.

Epaimahaikideek uko egingo diote beren zereginari, eta horren berri emango diote organo eskudunari, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 23. artikuluan aurreikusitako egoeraren bat gertatzen denean, eta hautagaiak errekusatatu ahal izango dituzte epaimahaikideak, lege beraren 24. artikuluan ezarritakoaren arabera, aurreko artikuluan aipatutako arrazoiren bat dagoenean.

Epaimahaiaren erabakiak hartuko dira bertaratutakoen botoen gehiengoaz, eta epaimahaiburuak hautsiko ditu berdinketak. Epaimahaia ezin izango da eratu, eta ezin izango ditu bere zereginak bete, kideen erdiak baino gehiago ez badaude, idazkaria eta epaimahaiburua barne. Gainera, adituak izendatzeko eskatu ahal izango dio deialdia



egin duen agintaritzari, aholkulari gisa aritu daitezzen (hitza izango dute baina botorik ez); halaber, laguntzaileak eskatu ahal izango ditu, probak egiteko eta horietan zaintza-lanak egiteko.

Epaimahaikideren batek huts egiten duenean, gaixotzen denean edo, oro har, arrazoi justifikaturen bat dagoenean, ordezeko bat arituko da haren ordeze. Epaimahaiburua bertaratu ez bada, kargua hutsik dagoelako, gaixo dagoelako edo legezko beste kausaren bat tarteko, haren ordezekoak ordezkaturiko du, edo, bestela, hierarkia, antzinasun eta adin handiena duen epaimahaikideak, hurrenkera horretan. Idazkariari dagokionez, haren ordezekoak ordeztuko du, aldi baterako, kargua hutsik badago, bertaratu ez bada edo gaixo badago, edo, bestela, epaimahaiak erabakitako pertsonak.

Epaimahaiari dagokio:

- a) Prozesuaren objektibotasunaren erantzukizuna duen aldetik, deialdiaren oinarriak betetzen direla bermatzea eta, hala badagokio, behar diren erabakiak hartzea arau-hutsuneak integratzeko eta haien aplikazioan sor litezkeen kontraesanak gainditzeko. Hautaketa-prozesuaren edozein unetan, epaimahaiak jakiten badu hautagairen batek ez duela betetzen deialdiko baldintzaren bat, interesdu-nak esateko duena entzun eta gero, hautagaia prozesutik kanporatzea proposatuko dio dagokion organoari, hautagaiak eskabidean zer zehaztugabetasun edo faltsukeria egin duen adieraziz.
- b) Oposizio-faseko probak eta lehiaketa-faseko merezimenduak baloratzea. Horretarako, epaimahaiak dagozkion erabakiak hartuko ditu eta Basauriko Udalaren web-orrian argitaratuko dira. Interesdunek erabakiak inpugnatu ahal izango dituzte, 5 egun balioduneko epean, eta epaimahaiak inpugnazio horiek ebatziko ditu.
- c) Puntuaziorik handiena lortu duen hautagaia proposatzea eta, deitutako lanpostu-kopurua eta hutsik gelditu diren lanpostuak aintzat hartuta, puntuaziorik handiena lortu duen hautagaia lanpostuan izendatzeko proposamena helaraztea Alkatetzari.
- d) Epaimahaiak proben ordena aldatu ahal izango du, baita erabaki ere egun be-rean bi proba edo gehiago egitea.

Epaimahaikideen zerrenda, baita ordezekoena ere, jendaurrean jarriko dira, onartutakoen eta baztertutakoen behin betiko zerrendarekin batera.

### **Seigarrena. — Hautaketa-prozesua**

Oposizio-lehiaketaren sistema erabiliko da.

#### *Oposizio-fasea*

Bi ariketa egin beharko dira: lehena nahitaezkoa eta baztertzailea izango da, eta bigarrena, berriz, euskararen 3. hizkuntza-eskakizuna egiaztatzekoa, borondatezkoa eta ez-derrigorrezkoa.

Lehen ariketa teoriko-praktikoa (nahitaezkoa eta baztertzailea)

Nahitaezkoa eta baztertzailea. Proba teoriko-praktikoa izango da, gehienez ordubeteko, deialdi honi erantsitako programaren edukian oinarrituta. Ariketak 0tik 30era bitarteko puntuazioa izango du, eta dezimalen bi zifra ere onartuko dira; proba gainditzeko 15 puntu lortu beharko dira.

Ariketa osorik irakurri beharko du izangaiak, epaimahaiaren aurreko saioan. Ariketa osoa irakurri ondoren, beharrezkotzat jotzen dituen galdera guztiak egingo ditu epaimahaiak, gehienez ere hogeita hamar minutuz, zehazteko proposatutako konponbidearen egokitasuna (egokitzen jotzen dituen lagungarriak erabil ditzake horretarako) eta eranskinean ageri den programan jasotako gaiei buruz izangaiak duen ezagutza maila.

Epaimahaiak zehaztuko du non, noiz (eguna eta ordua) eta nola egiten diren irakurketa horiek.



Ariketa honetan, hauexek baloratuko ditu epaimahaiak: proposatutako konponbidearen eraginkortasuna eta kalitate tekniko eta funtzionala, sistematika, aztertzeko gaitasuna eta idatziz eta ahoz adierazteko gaitasuna, programari buruzko ezagutzak, gaitasun pertsonalak, eta heldutasun maila, oreka, erantzukizuna eta erabakitze gaitasuna.

METRICA 3.0 metodologiaren erabilera oinarrituko da ariketa, informazio-sistemak garatzeko prozesuan IT proiektuen kudeaketa egitean, Udalaren benetako proiektu bat hartuta.

Metodo eta teknika multzo bat eskaintzen du METRICA 3.0 metodologiak, informazioaren teknologien proiektu-burua bere lanpostuan gidatzeko eta proiektu informatiko baten bizi-zikloko prozesuetako produktuak lortzeko, era horretan parte-hartzaileen produktibitatea hobetu eta produktuen kalitatea ziurtatzeko. Proposatutako teknika gehienek merkatuan eskuragarri dauden tresnak dituzte euskarri, eta erabilera automatizatzen dute neurri handiagoan edo txikiagoan.

Ezagutza teorikoak dituzten izangaiek ezagutza horiek lanpostuaren berezko zereginetan aplikatu ahal izateko prestatuko da proba, kasu errealetan aplikatuta.

Bigarren ariketa: euskara-proba (borondatezkoa eta ez-baztertzaila)

Borondatezkoa eta ez-baztertzaila. Euskararen 3. hizkuntza-eskakizuna egiaztatu beharko da, epaimahaiak emandako ildoan arabera eta horretarako Euskal Funtzio Publikoari buruzko Legearen 99.1 artikuluan ezarritakoaren arabera Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak emandako jarraibideei jarraiki.

Ariketa hau ez dute egin beharko IVAPek igorritako 3. hizkuntza eskakizunaren (edo hortik gorakoa) ziurtagiria duten pertsonak edo Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko C-1 mailaren (edo goragokoa) pareko euskararen ezagutza egiaztatze titulu edo ziurtagiri ofizialeko bat dutenek. Titulu eta ziurtagiri horiek guztiak zerrendatuta daude apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuaren 41. artikuluan, azaroaren 9ko 297/2010 Dekretuaren 3. artikuluan eta hurrengoetan, eta apirilaren 3ko 47/2012 Dekretuan, eta hautagaiek eskatutako maila ariketa egin aurretik egiaztatu beharko dute, dagokion ziurtagiria Giza Baliabideen Zuzendaritzan aurkeztuta; izan ere, horrela egin ezean, ez da aplikatuko ariketaren salbuespena.

Hala ere, ez da beharrezkoa izango ziurtagiri hori aurkeztea, baldin eta hizkuntza-eskakizuna egiaztatuta badago Euskara Tituluaren eta Ziurtagirien Erregistro Bateratuan. Horretarako, parte-hartzaileek baimena emango diote espresuki Basauriko Udalari, erregistro horretan egiazta dezan.

Euskaraz egindako ikasketa ofizialak aintzat hartzeko eta euskara-maila hizkuntza-tituluen eta ziurtagirien bidez egiaztatetik salbuesteko apirilaren 3ko 47/2012 Dekretuak xedatutakoaren babesean hizkuntza-eskakizunak egiaztatu nahi dituztenek dagokien ziurtagiri akademikoa aurkeztu beharko dute.

IVAPek emandako hizkuntza-eskakizunaren ziurtagiria (1 edo 2) edo Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko B-1 edo B-2 mailen pareko euskararen ezagutza egiaztatzen duen titulu edo ziurtagiriren bat dutenei, ondoren adierazten den puntuazioaren arabera baloratuko zaie eskakizun hori, baldin eta ariketa hau egin aurretik egiaztatu badute, aurreko paragrafoetan aurreikusitako moduan; bestela, ez da baloratuko.

Ariketa honetan, 8,70 puntu emango zaizkio 3. hizkuntza-eskakizunaren egiaztagiriri, 4,35 puntu 2. hizkuntza-eskakizunaren egiaztagiriri, eta 2,17 puntu 1. hizkuntza-eskakizunaren egiaztagiriri.

Gehieneko puntuazioa

Gehienez ere 30 puntu lortu daitezke oposizio-fasean, euskara-proba kontuan hartu gabe.



**Lehiaketa-fasea. Gehieneko puntuazioa: 13,50 puntu**

Lehiaketa-fasean, eskabideak aurkezteko epean alegatutako eta egiaztatutako merezimenduak baloratuko dira. Gehienez hamahiru puntu eta erdi (13,50) lortu daitezke. Epaimahaiak merezimendu hauek baloratuko ditu:

- a) Lan-esperientzia. Gehienez 7,60 puntu.  
Administrazio Publikoan proiektu-buru gisa emandako benetako zerbitzuak: 0,35 puntu zerbitzu-urte bakoitzeko edo sei hilabetetik gorako frakzio bakoitzeko, eta gehienez 7,60 puntu.
- b) Antzinasuna. Gehienez 3,40 puntu.  
— Administrazio Publikoan lan egindako urte oso bakoitzeko 0,33 puntu, eta gehienez 3,40 puntu.
- c) Prestakuntza edo hobekuntza ikastaroak: gehienez 2,50 puntu.

Soil-soilik 1998ko urtarrilaren 1etik aurrera egindako ikastaroak eta prestakuntza-jarduerak baloratuko dira, baldin eta ikastaro eta jarduera horiek lotura zuzena badute plazaren berezko zereginekin eta «IKT proiektuen burua» lanpostua behar bezala betetzeko behar diren gaitasunak eta trebetasunak eskuratzearekin.

Parte hartzea behar bezala egiaztatu beharko da, dagokion diploma edo ziurtagiriaren bidez. Bertan, nahitaez agertu beharko dira ikastaroaren eskola-orduak eta hautagaiaren parte-hartzea. Parte-hartzea baremo honen arabera baloratuko da:

- 1 eta 10 ordu bitarteko iraupena duten ikastaroak: 0,025 puntu.
- 11 eta 30 ordu bitarteko iraupena duten ikastaroak: 0,05 puntu.
- 31 eta 50 ordu bitarteko iraupena duten ikastaroak: 0,10 puntu.
- 51 eta 70 ordu bitarteko iraupena duten ikastaroak: 0,25 puntu.
- 71 eta 90 ordu bitarteko iraupena duten ikastaroak: 0,33 puntu.
- 90 orduetik gorako iraupena duten ikastaroak: 0,75 puntu.

IVAPek, INAPEk eta IEAPEk antolatutako ikastaroen gain, unibertsitateek eta Hezkuntza Ministerioaren edo autonomia-erkidegoetako hezkuntza-sailen mendeko ikastetxeek emandakoak eta edozein zentro ofizialek (ministerio, sail, merkataritza-ganbera, elkargo ofizial eta abarrek) eksklusiboki antolatutakoak ere baloratuko dira, baldin eta ikastetxe horiek ematen badute bertaratze-ziurtagiria edo irakasle-ziurtagiria.

Prestakuntza Erregelamenduaren 23.3 artikuluan ezarritakoaren arabera, Administrazio Publikoetarako etengabeko prestakuntzako IV. Akordiotik eratorritako prestakuntza-ekintza guztiak ere baloratuko dira.

Halaber, alegatzen diren prestakuntza- eta hobekuntza-ikastaroek lehiaketako lanpostuaren berezko eginkizunekin zuzeneko zerikusia duten gaiei buruzkoak izan beharko dute.

Bertaratze-ziurtagirian ez bada ageri ikastaroaren ordu-kopuru zehatza, ezin izango da baloratu, non eta izangaiak ez duen ikastaroaren iraupena egiaztatzen, ikastaroa eman zuen erakundearen ziurtagiriaren edo egiaztariaren bidez.

Ez dira baloratuko titulu akademiko ofizial bat lortzeko ikasketa-plan baten parte diren ikastaroak, irakasgaiak edo jarduerak.

1998ko urtarrilaren 1etik aurrera emandako prestakuntzara mugatzeko arrazoiak dira, alde batetik, orduz geroztik Basauriko Udalaren egituraren eta antolaketaren izandako eraldaketa sakona, eta bestetik, araudiaren eta baliabide materialen eboluzioa eta teknologia eta lan-metodo berrien aplikazioa; horiek direla eta, zerbitzu berriak ematen dira orain, edo zerbitzuak emateko moduak eraldatu dira.

**Zazpigarrena. — Epaimahaiaren proposamena**

Ariketen kalifikazioa eta merezimenduen balorazioa amaitutakoan, epaimahaiak Udalaren webgunean argitaratuko du oposizio-lehiaketa gainditu duten izangaien zerrenda, lehentasun-hurrenkeran, eta puntuazio handiena lortu duenaren aldeko izendapen-proposamena egingo du.



Hautaketa-prozesuaren behin betiko sailkapen-hurrenkera zehazteko, lehiaketa-oposizio fasean lortutako kalifikazioak batuko dira.

Berdinketak Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2015 Legean ezarritako irizpideen arabera ebatziko dira. Berdinketa apurtzen ez bada, Basauriko Udaleko karrerako funtzionarioentzako hautaketa-prozesuak arautzeko oinarri orokorren 9.1 oinarrian ezarritakoaren arabera ebatziko da. Alkatetzaren uztailaren 1eko 2311/2022 Dekretuaren bidez onartu ziren oinarri horiek (2022ko uztailaren 26ko Bizkaiko Aldizkari Ofiziala, 141 zenbakia).

Behin-behineko zerrenda hori argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, interesdunek 10 egun balioduneko epea izango dute egoki iritzitako erreklamazioak aurkezteko.

Erreklamazioak aztertu ondoren, epaimahaiak alkateari igorriko dio akta, puntuazio handiena lortu duenaren aldeko izendapena egin dezan. Akta horretan, puntuazio-hurrenkeran, hautaketa-prozesua gaindituta, deitutako plaza-kopurua gainditzen duten hautagai guztiak agertuko dira.

Epaimahaiak proposatutako hautagai-kopurua ez da izango, inola ere, deitutako plaza-kopurua baino handiagoa. Edonola ere, Basauriko Udalean egon daitezkeen lanpostu hutsak –deitutakoaren antzekoak– aldi baterako betetzeko, hautaketa-prozesua gainditu duten izangaien zerrenda aurkeztu beharko du epaimahaiak, lortutako puntuazioaren araberrako hurrenkeran. Hemen osatutako poltsak lehentasuna izango du aurretik sortutako poltsen aurrean, horiek indarrean dirauten bitartean.

Epaimahaiak deialdia hutsik geratzen dela adierazi ahal izango du, baldin eta uste badu izangaietako bakar batek ez duela lanpostuko erantzukizunak betetzeko adinako mailarik lortzen probetan.

#### **Zortzigarrena. – Dokumentuak aurkeztea**

Izendapenerako proposatzen den pertsonak ez ditu agiri bidez justifikatu beharko lehendik betetzen duen lanpostuan sartzean dagoeneko frogatutako baldintzak eta betekizunak, eta bakarrik aurkeztu beharko dituzte administrazioaren esku ez dauden eta baloratu diren gainerako baldintza eta merezimenduen agiri originalak edo behar bezala konpultsatuak.

#### **Bederatzigarrena. – Karrerako funtzionario izendatzea**

Baldintzak aurreko oinarrian ezarritako moduan egiaztatu ondoren, epaimahaiak proposamena Basauriko Udaleko organo eskudunari helaraziko dio, karrerako funtzionario izendatzeko proposamena egin dezan.

Alkate-presidenteak funtzionario izendatuko ditu epaimahaiak proposatutako hautagaiak.

#### **Hamargarrena. – Gorabeherak**

Epaimahaiak ahalmena izango du sortutako zalantzak eta gorabeherak ebazteko eta lehiaketa-oposizioa behar bezala antolatzeko beharrezkoak diren erabakiak hartzeko, oinarri hauetan aurreikusi gabeko alderdi guztietan.

#### **Hamahirugarrena. – Aurkaratzeak**

Oinarri hauen aurka aukerako berraztertze errekurtsoa aurkeztu ahal izango da, hila-beteko epean, edo zuzenean administrazioarekiko auzien jurisdikzioan aurkaratu ahal izango dira, bi hila-beteko epean, biak Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen diren egunetik zenbatzen hasita, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 112., 123. eta 124. artikuluetan eta Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioaren uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 46. artikuluan ezarritakoaren arabera.





## I. ERANSKINA

1. Informazio-Sistemen Plangintza (ISP Prozesua). Definizioa eta Antolaketa.
2. Informazio-Sistemen Plangintza (ISP Prozesua). Informazio Garrantzitsuaren Azterketa.
3. Informazio-Sistemen Plangintza (ISP Prozesua). Baldintzen Identifikazioa.
4. Informazio-Sistemen Plangintza (ISP Prozesua). Egungo Sistemen Azterketa.
5. Informazio-Sistemen Plangintza (ISP Prozesua). IS Ereduaren Diseinua.
6. Informazio-Sistemen Plangintza (ISP Prozesua). Arkitektura Teknologikoaren Definizioa.
7. Informazio-Sistemen Plangintza (ISP Prozesua). Ekintza-Planaren Definizioa.
8. Informazio-Sistemen Plangintza (ISP Prozesua). ISP Berrikustea eta Onartzea.
9. Sistemaren Bideragarritasun-Azterketa (Sba Prozesua). Sistemaren Irismena Ezartzea.
10. Sistemaren Bideragarritasun-Azterketa (Sba Prozesua). Egungo Egoeraren Azterketa.
11. Sistemaren Bideragarritasun-Azterketa (Sba Prozesua). Sistemaren Baldintzen Definizioa.
12. Sistemaren Bideragarritasun-Azterketa (Sba Prozesua). Konponbide-Aukeren Azterketa.
13. Sistemaren Bideragarritasun-Azterketa (Sba Prozesua). Aukeren Balorazioa.
14. Sistemaren Bideragarritasun-Azterketa (Sba Prozesua). Soluzioa Hautatzea.
15. Informazio-Sistemaren Azterketa (Isa Prozesua). Sistemaren Definizioa.
16. Informazio-Sistemaren Azterketa (Isa Prozesua). Baldintzak Ezartzea.
17. Informazio-Sistemaren Azterketa (Isa Prozesua). Azterketa-Azpisistemen Identifikazioa.
18. Informazio-Sistemaren Azterketa (Isa Prozesua). Erabilera-Kasuen Azterketa.
19. Informazio-Sistemaren Azterketa (Isa Prozesua). Klaseen Azterketa.
20. Informazio-Sistemaren Azterketa (Isa Prozesua). Datu-Eredua Egitea.
21. Informazio-Sistemaren Azterketa (Isa Prozesua). Prozesu-Eredua Egitea.
22. Informazio-Sistemaren Azterketa (Isa Prozesua). Erabilzaile-Interfazearen Definizioa.
23. Informazio-Sistemaren Azterketa (Isa Prozesua). Sendotasun-Azterketa eta Baldintzen Zehaztapena.
24. Informazio-Sistemaren Azterketa (Isa Prozesua). Proba-Planaren Zehaztapena.
25. Informazio-Sistemaren Diseinua (ISD Prozesua). Sistemaren Arkitekturaren Definizioa.
26. Informazio-Sistemaren Diseinua (ISD Prozesua). Euskarri-Arkitekturaren Diseinua.
27. Informazio-Sistemaren Diseinua (ISD Prozesua). Erabilera Errealeko Kasuen Diseinua.
28. Informazio-Sistemaren Diseinua (ISD Prozesua). Klaseen Diseinua.
29. Informazio-Sistemaren Diseinua (ISD Prozesua). Sistemaren Modulu-Arkitekturaren Diseinua.
30. Informazio-Sistemaren Diseinua (ISD Prozesua). Datuen Diseinu Fisikoa.
31. Informazio-Sistemaren Diseinua (ISD Prozesua). Sistemaren Arkitektura Egiaztatzea eta Onartzea.
32. Informazio-Sistemaren Diseinua (ISD Prozesua). Eraikuntzako Zehaztapenak Sortzea.



33. Informazio-Sistemaren Diseinua (ISD Prozesua). Migrazioaren Diseinua eta Datuen Hasierako Karga.
34. Informazio-Sistemaren Diseinua (ISD Prozesua). Proba-Planaren Zehaztapen Teknikoa.
35. Informazio-Sistemaren Diseinua (ISD Prozesua). Ezarpen-Baldintzak Finkatzea.
36. Informazio-Sistemaren Eraikuntza (ISE Prozesua). Sorkuntza- eta Eraikuntza-Ingurunea Prestatzea.
37. Informazio-Sistemaren Eraikuntza (ISE Prozesua). Osagaien eta Prozeduren Kodea Sortzea.
38. Informazio-Sistemaren Eraikuntza (ISE Prozesua). Unitate-Probak Egitea.
39. Informazio-Sistemaren Eraikuntza (ISE Prozesua). Integrazio-Probak Egitea.
40. Informazio-Sistemaren Eraikuntza (ISE Prozesua). Sistemako Probak Egitea.
41. Informazio-Sistemaren Eraikuntza (ISE Prozesua). Erabiltzaile-Eskuliburuak Egitea.
42. Informazio-Sistemaren Eraikuntza (ISE Prozesua). Azken Erabiltzaileen Prestakuntzaren Definizioa.
43. Informazio-Sistemaren Eraikuntza (ISE Prozesua). Migrazio-Osagaiak eta -Prozedurak Eraikitzea eta Datuen Hasierako Karga.
44. Sistemaren Ezarpena eta Onarpena (SEO Prozesua).
45. Informazio-Sistema Mantentzea (Ism Prozesua).
46. Informazio Geografikoko Sistema. Definizioak eta Oinarrizko Kontzeptuak.
47. Informazio Geografikoko Sistema. Funtzioak eta Aplikazioak.
48. Informazio Geografikoko Sistema. Informazio Geografikoa.
49. Informazio Geografikoko Sistema. Informazio-Geruzak eta Atributuak.
50. Informazio Geografikoko Sistema. Koordinatu-Sistemak, Proiekzioak eta Geo-Erreferentziak.
51. Informazio Geografikoko Sistema. Datu Bektorialen Eredua. Informazioa Editatzea eta Sortzea.
52. Informazio Geografikoko Sistema. Datu-Baseak.
53. Informazio Geografikoko Sistema. Azterketa Espaziala. Erauzketa-Tresnak. Gainjartzea eta Hurbiltasuna.
54. Informazio Geografikoko Sistema. Mapak.
55. Basauri Katastroa. Katastroko Datuen Eredua.
56. Basauri Katastroa. Geruza Geografikoak.
57. Basauri Katastroa. Arkitektura Teknologikoa. Datu-Base Alfanumerikoa.
58. Basauri Katastroa. Arkitektura Teknologikoa. Geodatabase.
59. Basauri Katastroa. Arkitektura Teknologikoa. Bfarekin Integratzea.
60. Basauri Katastroa. Funtzionaltasunak.